

BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEEN  
KONTSULTAK  
AURREIKUSPEN-PLANEN ORIENTAZIO INBERTITZAILEAK

• *Aktiboen zorroa zehaztapena, inbertsio-orientazioa ezartzeko*

Jaun agurgarriak,

Honen bidez, kontsulta bat egiten dizuegu Borondatezko Aurreikuspeneko Erakundeen zenbait jarduera arautzen dituen maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuaren 14. artikuluko berriaren interpretazioari buruz.

Otsailaren 13ko 13/2024 Dekretuak hainbat aldaketa egin zituen Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei ("BGAE") aplikatu beharreko araudian, eta horien artean nabarmendu behar da 92/2007 Dekretuan artikuluko berri bat sartu zela gizarte-aurreikuspeneko planen inbertsio-orientazioak definitzeko.

Inbertsio-orientazioak definitzen dituzten inbertsio-ehunekoaren kalkuluar dagokionez, xedapen berri horrek ezartzen du aurreikuspen-planek inbertsio-orientazioa izango dutela, errenta finkoko edo errenta aldakorreko beren aktibo-zorroko ehunekoaren arabera. Adibidez, errenta finko mistoaren edo errenta aldakor mistoaren orientazioak honela definitzen dira:

Errenta finko mistoa: zorroaren % 30 baino gutxiago errenta aldakorreko aktiboetan inbertitzen duten gizarte-aurreikuspeneko planak. Errenta Aldakor Mistoa: zorroaren % 30-75 errenta aldakorreko aktiboetan inbertitzen duten gizarte-aurreikuspeneko planak.

Aurreikuspen-planetan orientabide berriak behar bezala ezartzeko, zurekin baieztatu nahi dugu zer den "aktibo-zorroa". Hau da, inbertsio-ehunekoak kalkulatzeko, ondarea edo zorroaren guztizko esposizioa kontuan hartuta egin behar diren..

Inbertsio orientabideak zehazteko kasu berean, baina inbertsio kolektiboko erakundeetan, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak argitu zuen esposizioan oinarrituta egin beharko dela kalkulua (otsailaren 4ko 1/2009 Zirkularraren hirugarren araua).

"Inbertsio-bokazioak definitzen dituzten inbertsio-ehunekoak kalkulatzeko, IKEaren guztizko esposizioa hartzen da kalkulu-oinarritzat. Guztizko esposizioa IKEak lortutako esposizioaren batura da kontuko finantza-tresnetan eta deribatuetan egindako inbertsioak. Esposizioa tresna eratorriekin zenbartzeko, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren abenduaren 21eko 6/2010 Zirkularrean, inbertsio kolektiboko erakundeetatik eratorritako tresnekin agendado eragiketei buruzkoan, jasotako konpromisoaren metodologia aplikatuko da.

"Inbertsio-bokazioak zehazte aldera, IKEarentzat ez da esposizio gehigarririk sortuko, baldin eta kontuzko edo deribatuko finantza-tresnetan egindako inbertsioek IKEa arrisku gehigarrien eraginpean jartzen ez badute, besteak beste, interes-tasen eta kreditu-tasen

arrisku gehigarrien eraginpean; beraz, besteak beste, RIICen 38.2 artikuluko b) letran ezarritako baldintzak betetzen dituen estatu batek jaulkitako zor publikoaren jaulkipenekin edo aktibo horien gaineko aldi baterako erosketekin bat etorri beharko dute, bi kasuetan 3 hilabete baino gutxiagoko epemugan, eta jaulkitzaileak kreditu-kalitate handia aurkeztu beharko du beti."

Azken batean, zuekin harremanetan jartzen gara Eusko Jaurlaritzak aurreikuspen-plan baten orientazio inbertitzailea zehazteko kontuan hartu behar den kalkulu-oinarriari buruz duen irizpidea ezagutzeko. Hau da, "aktibo-zorroa" esposizio osoari-CNMMVk IKEetarako aplikatzen duen irizpidea- edo planaren ondare osoari dagokiola ulertu behar dugu.

Zure esanetara gauzkazu kontsulta honi buruzko edozein argibide gehigarri emateko. Jaso ezazue agur bero bat.

#### ERANTZUNA

Borondatezko aurreikuspeneko erakundeen jarduera jakin batzuk arautzen dituen maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuaren 14. artikuluan aurreikusitako inbertsio-ehunekoen kalkulua gizarte-aurreikuspeneko planen inbertsio-orientazioa zehazteko orduan, aktiboen zorroaren guztizko esposizioa kontuan hartuko da.

Horretarako, estatuko araudiaren antzera, honako hauek hartuko dira kontuan:

-Sailkapena gizarte-aurreikuspeneko planaren inbertsio-politikaren printzipioak biltzen dituen adierazpenean aurreikusitakoaren arabera zehazten da.

-Inbertsio kolektiboko erakundeetan inbertituz gero, erakunde horien kalifikazioa kontuan hartuko da, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren otsailaren 4ko 1/2009 Zirkularraren arabera, inbertsio kolektiboko erakundeen kategoriei buruzkoa, inbertitzeko duten bokazioaren arabera, gizarte-aurreikuspeneko planaren inbertsio-politika zehazteko.

-Gizarte-aurreikuspeneko plan aseguratuen kasuan, partzialki edo osorik, aseguratzaileen esku dagoen hornidura errenta finkoko aktibotzat hartuko da.